Código de validación/*Balidazio kodea*
6Y4L493Y3823315Y1A5W

***UDALBATZARRAK 2017ko UZTAILAREN 4an EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN HARTUTAKO ERABAKIAK***

**ACUERDOS DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 4 DE JULIO DE 2017**

| Asistentes/*Etorritakoak* |
|---|
| **ALCALDE/*ALKATEA*** |
| CARLOS TOTORIKA IZAGIRRE |
| **CONCEJALES/*ZINEGOTZIAK*** |
| MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO<br>HIART REDONDO URUEÑA<br>JOL GISASOLA GARAI<br>ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA<br>SILVIA SERRANO GOMEZ<br>JAVIER LOBATO TEDEJO<br>JESUS MARTIN DIAZ<br>ALBERTO GARCIA ABAD SANCHEZ<br>JUAN CARLOS ABASCAL CANDAS<br>JOSE LUIS ARAUJO ARAUJO<br>BEATRIZ GAMIZ MATA<br>PAUL YARZA AGIRREGOMEZKORTA<br>FERNANDO LECUMBERRI GAISAN<br>JULEN DOMINGUEZ SANCHEZ |
| **SECRETARIA HABILITADA/*IDAZKARI GAITUA*** |
| BLANCA BARRAGAN ALBA |

| Ausentes/*Etorri ez direnak* |
|---|
| JOSE RAMON GOMBAU IBARZ<br>MIREIA ARGINZONIZ GARITAONANDIA |
| **INTERVENTORA/*KONTUHARTZAILEA*** |
| IDOIA IZAGIRRE MENDIKUTE |

*Udaletxeko bilkura aretoan, 2017ko uztailaren 4an 19:05ean, orrialdearen hasieran adierazten diren Udaleko kideak*

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las 19:05 del día 4 de julio de 2017, en primera convocatoria, se reúnen

*lehenengo deialdian bildu dira, Ezohiko bilkuran.*

los/as miembros de la Corporación antes citados/as, en sesión Extraordinaria .

*Idazkari Gaituak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.*

Una vez comprobada por la Secretaria Habilitada la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1. ***BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA***

1. **INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

*Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraiengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.*

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

*Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.*

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

2. ***2017/06/01 EGINIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.***

2. **APROBAR EL ACTA DE FECHA 01/06/2017**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5* | PSE-EE/PSOE: A favor 5 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |

Código de validación/*Balidazio kodea*
6Y4L493Y3823315Y1A5W

*Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 1,*

*PP: Aldekoak 2*

*Irabazi: Aldekoak 1*

Se puede Ermua Ahal da: A favor 1,

PP: A favor 2

Irabazi: A favor 1

***Lehenengo erabakia:***

***"2017/06/01 eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**Primer acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 01/06/2017, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

***3. 2017/06/13an EGINIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA***

**3. APROBAR EL ACTA DE FECHA 13/06/2017**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5* | PSE-EE/PSOE: A favor 5 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |
| *Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 1* | Se puede Ermua Ahal da: A favor 1 |
| *PP: Aldekoak 2* | PP: A favor 2 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

***Bigarren erabakia:***

***"2017/06/13 eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean***

**Segundo acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 13/06/2017, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de**

*ezarritakoari jarraituz".*

**las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

4. ***ALBERTO GARCÍA-ABAD SÁNCHEZ "SE PUEDE ERMUA AHAL DA" ALDERDIAREN ORDEZKARI LEGEZ ZINEGOTZI KARGUAZ JABETZEA.***

4. **TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL POR "SE PUEDE ERMUA AHAL DA", EL CANDIDATO ALBERTO GARCIA-ABAD SÁNCHEZ**

5. ***GOITONDO INDUSTRIALDEAN ZUNTZ OPTIKOA HEDATZEKO MALLABIKO UDALA ETA ERMUKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ERANSKINA ONESTEA.***

5. **APROBAR EL ANEXO AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE MALLABIA Y EL AYUNTAMIENTO DE ERMUA PARA EL DESPLIEGUE DE FIBRA ÓPTICA EN EL POLÍGONO INDUSTRIAL DE GOITONDO.**

***BOZKETAREN EMAITZA***

*PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5*

*EH Bildu: Aldekoak 2*

*EAJ/PNV: Aldekoak 3*

*Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 2*

*PP: Aldekoak 2*

*Irabazi: Aldekoak 1*

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN**

PSE-EE/PSOE: A favor 5

EH Bildu: A favor 2

EAJ/PNV: A favor 3

Se puede Ermua Ahal da: A favor 2

PP: A favor 2

Irabazi: A favor 1

***Hirugarren erabakia:***

*1. Goitondo Industrialdean zuntz optikoa hedatzeko Mallabiko Udala eta Ermuko Udalaren arteko hitzarmenaren Eranskina onestea.*

**Tercer acuerdo:**

1. Aprobar el anexo al convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Mallabia y el Ayuntamiento de Ermua para el despliegue de Fibra Óptica en el Polígono Industrial de Goitondo.

Código de validación/*Balidazio kodea*
6Y4L493Y3823315Y1A5W

*2. Alkateari Mallabiko Udalarekin eginiko hitzarmenaren eranskina sinatzeko almena ematea, eta akordio hori eraginkorra izan dadin, hortik ondorioztatzen diren jarduketa guztiak egiteko".*

2. Facultar al Alcalde para la firma del citado anexo al convenio con el Ayuntamiento de Mallabia, para la efectividad de este acuerdo y cuantas actuaciones deriven del mismo.

**6. *ZINEGOTZIEI BULARRA EMATEKO BAIMENA ETA BESTE ESKUBIDE BATZUK APLIKATZEKO MODUA ONESTEA.***

**6. APROBAR LA FORMA DE APLICACIÓN DEL PERMISO DE LACTANCIA Y OTROS DERECHOS A LAS CONCEJALAS Y CONCEJALES.**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5* | PSE-EE/PSOE: A favor 5 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |
| *Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 2* | Se puede Ermua Ahal da: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 2* | PP: A favor 2 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

***Laugarren erabakia:***

*"Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ermuko Udalari erregelamenduak egiteko eta bere burua antolatzeko, bereziki bere gobernuko organoen funtzionamenduari, akordioak hartzeko erregimenari eta bere kideen estatutuari dagokionean, emaniko eskumenez baliatuz, Ermuko Udalak ondoko erabakiak hartu ditu, zinegotzien bularra*

**Cuarto acuerdo:**

"En el ejercicio de la competencia conferida al Ayuntamiento de Ermua en materia de potestad reglamentaria y de autoorganización, en particular, en lo relativo al funcionamiento de sus órganos de gobierno, su régimen de acuerdos y el estatuto de sus miembros, establecida en el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y en el apartado 3 del artículo 25 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el Ayuntamiento de

*emateko baimena izateko eskubidea arautzeko. Helburua amatasuna edo aitatasuna eta udal eginkizuna bateragarri egitea da, eskubide hori lotuta dagoelako berez eta, ondorioz, ETELen 25.6 artikuluan arautako eskubidearen kausa delako, amatasun edo aitatasun kasuetan.*

Ermua adopta los acuerdos siguientes a fin de regular el derecho al permiso de lactancia de las concejalas y concejales como medida para favorecer la conciliación de la maternidad o paternidad con el quehacer municipal, al estimar que dicho derecho está consustancialmente unido y, por tanto, trae causa del derecho regulado en el artículo 25.6 de la LILE, en los casos de maternidad o paternidad.

*1. Orokorrean zinegotziek Korporazioaren zerbitzuko langileek duten iraupen-epe bera izango dute amatasun edo aitatasun eskubideaz gozatzeko, elkarrekin duten antzekotasunagatik. Une honetan eskubide hori 126 egutegi-egunekoa da, baina guraso biek lan egiten badute, batek bakarrik, beraien aukeran, egikaritu ahal izango du eskubidea.*

1º. Con carácter general, las concejalas y concejalas disfrutarán del derecho a la maternidad o paternidad por el mismo plazo de duración que se reconozca al personal al servicio de la Corporación, por razón de analogía, que en el momento presente alcanza los 126 días naturales, si bien sólo podrá ser ejercido por uno de los progenitores en caso de que ambos trabajen, a su elección.

*2. Antzekotasunezko aplikazioaren arrazoi berarengatik zinegotziek bularra emateko baimena izateko eskubideaz gozatuko dute Korporazioaren zerbitzuko langileen baldintza berberetan eta iraupen-epe berberez, une honetan haurrak urtebete bete arte luzatzen dena.*

2º. Por la misma razón de aplicación analógica, las concejalas y concejales disfrutarán del derecho al permiso de lactancia en las mismas condiciones y por el mismo plazo de duración que se reconozca al personal al servicio de la Corporación, que en el momento presente se extiende hasta que el menor o la menor cumpla un año.

*Bularra emateko eskubidea egunean ordubete lanean ez egotea da. Zinegotziak bi zatitan (bi ordu erditan) zatitu dezake denbora hori, baina guraso biek lan egiten badute batek bakarrik egikaritu ahal izango du eskubidea, beraien lanaldia, hasieran edo bukaeran, beraien aukeran, ordu erdiz murriztuz. Halaber ordu horiek guztiak batera, lanaldi osotan pilatzea aukera dezake, hots, 15 egunetan.*

El permiso de lactancia consiste en el derecho al disfrute de una hora de ausencia del trabajo que se podrá dividir en dos fracciones (dos medias horas) por la concejala o concejal, si bien sólo podrá ser ejercido por uno de los progenitores en caso de que ambos trabajen, con reducción de su jornada en media hora, al comienzo o al final de la jornada, a su elección, o bien puede optar por acumularlo en jornadas completas, lo que supone 15 días.

*Zinegotzien kasu zehatzean egun horien zenbaketa modu naturalean*

Dada la dificultad de aplicar, de manera natural, el cómputo de estos días en

*aplikatzeko zailtasuna dela-eta, bularra emateko baimen-egun bat Udalbatzarraren edota Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien bilkura bat bestekoa izango da.*

*Egun berean aipaturiko informazio batzorde edo Udalbatzarraren bilkura bat baino gehiago suertatzen badira, egun hori bularra emateko baimen-egun bakar bat legez zenbatuko da.*

*3. Bai amatasun- edo aitatasun-eskubidearen kasuan, bai bularra emateko eskubidearen kasuan, aipaturiko denboran zinegotzia kide den korporazio-organoen bilkuretara ez joateko eskubidea aitortzen zaio zinegotziari, bere botoa talde politikoko bozeramalearen edo, hala denean, beste zinegotzi baten esku utzi ahal izango duelarik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6 artikuluan aurreikusten den moduan eginez.*

*4. Zinegotzi interesdunak gaixotasun larria edo luzaroko ezgaitasuna duenean ere bera kide den korporazio-organoen bilkuretara ez joateko eta botoa inoren esku uzteko eskubidea aitortzen zaio Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, baina horrek ez du hautestontzietatik sortutako ordezkaritza aldatzen, Ermuko Udalean zinegotzi interesdunaren urruneko partaidetza sinadura digitala txertatuko duen egiaztagiri elektroniko bidez bermatzeko behar den baliabide elektronikorik ez dagoen bitartean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.1 artikuluan ezartzen den moduan.*

el caso de las concejalas o concejales se entenderá que un día de permiso de lactancia se corresponde con el de celebración de una sesión del Pleno de la Corporación o de las Comisiones Informativas de Asuntos Generales y de Pleno, respectivamente.

Cuando en el mismo día se celebren sesiones consecutivas de las mencionadas Comisiones Informativas o del Pleno de la Corporación se entenderá que se trata de un solo día de permiso de lactancia.

3º. Tanto en el supuesto en que se ejerza el derecho a la maternidad o paternidad y de lactancia, se reconoce a la concejala o concejal interesado el derecho a no asistir a las sesiones de los órganos de la Corporación de que forme parte durante el tiempo señalado, pudiendo delegar su voto en la portavoz o el portavoz del grupo político municipal al que esté adscrita o adscrito o, en su caso, en otro concejal o concejala, en la forma prevista en el artículo 25.6 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

4º. Asimismo, se reconoce a la concejala o concejal interesado el derecho a no asistir a las sesiones de los órganos de la Corporación de que forme parte y a la delegación del voto, en los términos del artículo 25.6 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en los casos de enfermedad grave o de incapacidad prolongada, sin que ello suponga alterar la representación surgida de las urnas, en tanto el Ayuntamiento de Ermua no pueda contar con los medios electrónicos necesarios para garantizar su participación a distancia, mediante el empleo de un certificado electrónico que incorpore la firma digital del concejal o concejala interesada, en los términos previstos en el

artículo 17.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

*Gaixotasun larri edo luzaroko ezgaitasun kasutzat edukiko da jardun gabe egongo dela aurreikusten den denbora egutegiko hiru hilabete baino gehiago izan daitekeenean. Hori medikuaren txosten batekin edo eskumen hori duen pertsonalak emaniko baja-agiriaren kopia batekin frogatuko da, berori, egoeraren berri eman eta jarraipena egiteko, Udal Idazkaritzan entregatuz,*

Se entenderá que se produce el supuesto de enfermedad grave o de incapacidad prolongada cuando el tiempo previsto de inactividad pueda ser superior a tres meses naturales, que se acreditará mediante un informe médico o copia del parte de baja emitido por el personal a quien corresponda esta competencia, que deberá entregarse en la Secretaría del Ayuntamiento a los solos efectos de proceder a su comunicación y seguimiento.

7. ***OSTALARITZAKO ETA JOLAS JARDUERETARAKO ESTABLEZIMENDUEN INSTALAZIOA ETA JARDUERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA HASIERAKO IZAERAZ ONESTEA.***

7. **APROBAR INICIALMENTE DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN Y ACTIVIDAD DE ESTABLECIMIENTOS HOSTELEROS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS.|**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
| --- | --- |
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5* | PSE-EE/PSOE: A favor 5 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |
| *Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 2* | Se puede Ermua Ahal da: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 2* | PP: A favor 2 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

***Bosgarren erabakia:***

*LEHENENGO. "Ostalaritzako eta jolas jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzeko udal Ordenantza"*

**Quinto acuerdo:**

PRIMERO. Aprobar con carácter inicial la "Ordenanza municipal Reguladora de la instalación y actividad de establecimientos

Código de validación/*Balidazio kodea*
6Y4L493Y3823315Y1A5W

*hasierako izaeraz onestea.*

*BIGARREN. Hasierako onespen-erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz. Epe horretan interesatuek espedientea aztertu eta egoki irizten dituzten erreklamazio, alegazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.*

*HIRUGARREN. Erreklamazio, alegazio edo iradokizunik aurkeztu ezean "Ostalaritzako eta jolas jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzeko udal Ordenantzaren" onespen-erabakia behin betiko hartutzat edukiko da eta ordenantza osorik argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Udalbatzarrak beste erabakirik espresuki hartu beharrik gabe".*

***Hasierako izaeraz onespenaren fasean ordenantzaren testua:***

***OSTALARITZAKO ETA JOLAS JARDUERETARAKO ESTABLEZIMENDUEN EZARPENA ETA JARDUERA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA***

***AURKIBIDEA***

***I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMUA.***
*1.ARTIKULUA. Ordenantzak barruan hartzen dituen jarduerak.*
*2. ARTIKULUA. Ordutegiak.*
*3. ARTIKULUA. Kokatzeko eremuak.*

***II. KAPITULUA. JARDUERAREN KOKALEKUA.***
*4. ARTIKULUA. Kokalekuan eraikinean.*

hosteleros y actividades recreativas".

SEGUNDO. Exponer al público el anterior acuerdo inicial durante treinta días hábiles, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones, alegaciones o sugerencias que estimen oportunas.

TERCERO. En el supuesto de que no se presenten reclamaciones, alegaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación de la modificación de la "Ordenanza municipal Reguladora de la instalación y actividad de establecimientos hosteleros y actividades recreativas", procediéndose a la publicación íntegra de la ordenanza en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación".

**Texto de la ordenanza en fase de aprobación inicial:**

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION Y ACTIVIDAD DE ESTABLECIMIENTOS HOSTELEROS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS**

## INDICE

**CAPÍTULO I. ÁMBITO DE APLICACIÓN**
ARTÍCULO 1. Actividades incluidas.
ARTÍCULO 2. Horarios.
ARTÍCULO 3. Zonas de emplazamiento.

**CAPÍTULO II. SITUACIÓN DE LA EDIFICACIÓN**
ARTÍCULO 4. Situación en la edificación.
ARTÍCULO 5. Condiciones de

*5. ARTIKULUA. Kokalekuari lotutako baldintzak eta erabilera-mugak landa-eremuetan eta eremu industrialetan.*
*6. ARTIKULUA .Establezimenduen tamaina eta forma*

***III. KAPITULUA. ESTABLEZIMENDUEN EKIPAMENDUA.***
*7. ARTIKULUA. Sukaldeak.*
*8. ARTIKULUA. Komunak.*
*9. ARTIKULUA. Aldagelak.*
*10. ARTIKULUA. Hondakin solidoak.*
*11. ARTIKULUA. Biltegia.*
*12. ARTIKULUA. Beste areto batzuk*

***IV. KAPITULUA. SEGURTASUN BALDINTZAK.***
*13. ARTIKULUA. Segurtasun-baldintza orokorrak.*
*14. ARTIKULUA. Argiak.*

***V. KAPITULUA. AIREZTAPEN BALDINTZAK***
*15. ARTIKULUA. Aireztapen-baldintzak. Publikoa egoten den eremuak.*
*16. ARTIKULUA. Komunak eta aldagelak.*
*17. ARTIKULUA. Zabor-gelak.*
*18. ARTIKULUA. Sukaldeak.*

***VI. KAPITULUA. ETXEKO UR BEROAREN BALDINTZAK***
*19. ARTIKULUA. Etxeko ur beroaren baldintza orokorrak.*

***VII. KAPITULUA. BALDINTZA AKUSTIKOAK ETA INTSONORIZAZIOARI LOTUTAKOAK***
*20. ARTIKULUA. Soinu-maila.*
*21. ARTIKULUA. Zarata-maila jardueraren kanpoaldean.*
*22. ARTIKULUA. Aire-zaratarako eta inpaktuen zaratarako isolamendua aldameneko lokalen artean.*
*23. ARTIKULUA. Aldameneko*

emplazamiento y limitaciones de uso en zonas rústica e industrial.
ARTÍCULO 6. Dimensiones y formas de los establecimientos.

**CAPÍTULO III. EQUIPAMIENTO DE LOS ESTABLECIMIENTOS**
ARTÍCULO 7. Cocinas.
ARTÍCULO 8. Aseos.
ARTÍCULO 9. Vestuarios.
ARTICULO 10. Residuos sólidos.
ARTÍCULO 11. Almacén.
ARTÍCULO 12. Otras dependencias.

**CAPÍTULO IV. CONDICIONES DE SEGURIDAD**
ARTÍCULO 13. Condiciones generales de seguridad.
ARTÍCULO 14. Alumbrado.

**CAPÍTULO V. CONDICIONES DE VENTILACIÓN**
ARTÍCULO 15. Condiciones de ventilación. Zonas de público
ARTÍCULO 16. Aseos y vestuarios.
ARTÍCULO 17. Cuartos de basura.
ARTÍCULO 18. Cocinas.

**CAPÍTULO VI. CONDICIONES AGUA CALIENTE SANITARIA**
ARTÍCULO 19. Condiciones generales ACS.

**CAPÍTULO VII. CONDICIONES ACÚSTICAS Y DE INSONORIZACIÓN**

ARTÍCULO 20. Niveles sonoros.
ARTÍCULO 21. Niveles de ruido en el exterior de la actividad.
ARTÍCULO 22. Aislamiento a ruido aéreo y ruido a impacto entre locales colindantes.
ARTÍCULO 23. Verificación del cumplimiento de los valores límite en

*lokaletara zarata transmititzen duten jardueren mugako balioak betetzen direla egiaztatzea.*

*24. ARTIKULUA. Ekipamendu mugatzailea/erregistratzailea.*

***VIII. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.***

*25. ARTIKULUA. Instalazio berrietarako dokumentazioa.*

*26. ARTIKULUA. Lizentziak aitortzea.*

*27. ARTIKULUA. Lizentzien titulartasuna aldatzea.*

*28. ARTIKULUA. Betetzea eta egiaztatzea.*

*29. ARTIKULUA. Tolerantzia-araubidea.*

*30. ARTIKULUA. Iraungitasuna eta luzapenak.*

*31. ARTIKULUA. Zehapen-araubidea.*

***XEDAPEN GEHIGARRIAK***

*Ikuskizunek eta jolas-jarduerek hain eragin handia dute herrien ohituretan eta hainbeste islatzen dute euren nortasuna eze, herriak handitu edo narriatu ahala, bertako ikuskizunek pareko bideari jarraitzen diote*

*.*

*Horregatik, jendaurreko ikuskizunak eta antzerako jolas-jarduerak arautzeko interes berezia adierazi du beti administrazio publikoak. Administrazioaren interes hori handiagotu egin da, gainera, ikuskizunek eta gainerako jolas publikoek erakarritako herritarren kopurua handituz joan den heinean. Gaur egun, erakunde publikoen arreta-gune nagusietako bat dira jendaurreko ikuskizunetarako eta aisiarako lokalak, kontuan hartuta halako emanaldiek era guztietako jende kopuru handia bertaratzea eta instalazio teknikoen alboan batzea dakartela. Hala, halakoak antolatu eta ospatzen direnean, gizartean eragin argia duten alderdi eta balorazioak*

actividades con transmisión de ruido a locales colindantes.

ARTÍCULO 24. Equipo limitador/registrador.

**CAPÍTULO VIII. RÉGIMEN JURÍDICO.**

ARTÍCULO 25. Documentación para nuevas instalaciones.

ARTÍCULO 26. Concesión de licencias.

ARTÍCULO 27. Cambios de titularidad de las licencias.

ARTÍCULO 28. Cumplimiento y comprobación.

ARTÍCULO 29. Régimen de tolerancia.

ARTÍCULO 30. Caducidad y prórrogas.

ARTÍCULO 31. Régimen sancionador.

**DISPOSICIONES ADICIONALES**

Los espectáculos y actividades recreativas influyen en las costumbres y reflejan de tal modo el carácter de los pueblos, que el engrandecimiento o degradación de los mismos suele correr parejo con la índole de sus espectáculos.

Por tal razón la Administración Pública ha mostrado siempre un señalado interés por la regulación de los espectáculos públicos y actividades recreativas similares. Ese interés de la Administración ha ido en crecimiento, a medida que los espectáculos y demás diversiones públicas han sido frecuentados por mayor número de ciudadanos y en nuestros días los locales destinados a ellos, y que son objeto de pública concurrencia, constituyen uno de los objetivos que demandan mayor atención por parte de todas las Administraciones Públicas, pues todo espectáculo o actividad recreativa suele llevar consigo la asistencia de una numerosa y variada concurrencia de

*azaleratzen dira, eta horien guztien artean pertsonen eta ondasunen segurtasunari lotutakoak lehenetsi beharra dago.*

personas, al lado de unas instalaciones de tipo técnico, que hacen que su organización y celebración incidan muy directamente en aspectos y valoraciones de indudable repercusión social, primando entre todas esas motivaciones las razones de seguridad de las personas y bienes.

*Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerek erlazio estua dute segurtasunarekin; izan ere, lokal itxietan egiten dira eta, normalean, ekipamendu elektriko eta elektronikoak edo/eta ostalaritzari lotutako makineria industriala erabiltzea eskatzen dute. Horiek guztiak arrisku-iturri dira, zuzenean erabiltzeaz arduratzen direnentzat ez ezik, ikuskizuna joan diren guztientzat ere.*

Los espectáculos públicos y actividades recreativas guardan estrecha relación con la seguridad, suelen tener lugar en locales cerrados y requieren normalmente la instalación de equipos eléctricos, electrónicos y/o maquinaria industrial relacionada con la restauración que pueden constituir un peligro para la seguridad, no sólo de quienes están encargados de manejarlos, sino también de quienes acuden al espectáculo en calidad de espectadores.

*Horiek horrela, jendaurreko ikuskizunak antolatzen direnean administrazioak ezin du ezikusiarena egin eta, aitzitik, Jendaurreko Ikuskizunetarako Polizia esaten zaion horren parte den arautegia xedatu du, zorrotz arautzeko segurtasunari —suterik gertatuz gero segurtasunari eta ebakuazioari lotutako kontuak, adibidez—, erabilerari eta irisgarritasunari lotutako alderdiak, besteak beste.*

De ahí que la Administración no pueda permanecer inactiva ante la celebración de los espectáculos públicos, que han sido y siguen siendo objeto de una meticulosa regulación, que forma parte de la llamada Policía de Espectáculos, mediante la cual se busca el estricto cumplimiento de normas como la seguridad y evacuación en caso de incendio, de utilización y accesibilidad entre otras.

*Beste alde batetik, halako gertaeren inguruan sortzen diren balioek (aisiaren erabilera egokiak, herri-segurtasunak, adingabeen hezkuntza eta beste batzuek) eragin zuzena dute udalerrian eta, hartara, horiek guztiak herritarren mesedetan babesteko helburuak Udalaren ekintza legitimatu ez ezik, beraren jarduna behartu ere egiten du.*

De otra parte, la adecuada utilización del ocio, la seguridad ciudadana, la educación de los menores y otros, son valores que interesan al municipio y cuya protección, en beneficio de la comunidad vecinal, no sólo legitima sino que demanda una efectiva acción del Ayuntamiento.

*Gure udalerrian ukaezina da ostalaritzako eta jolas-jardueretarako*

Es una realidad evidente en nuestro municipio, la excesiva proliferación de

Código de validación/Balidazio kodea
6Y4L493Y3823315Y1A5W

*establezimenduak larregi ugaldu direla; bereziki, taberna bereziaren, kafe-antzokiaren eta abarren kalifikazioa eskatzen duten establezimenduak. Izan ere, kalifikazio hori eskuratzeko helburu bakarra lokala ixteko ordutegi zabalagoa eskuratzea izaten da, eta gerora ez zaie lortutako kalifikazioari dagozkion beste baldintzei kasurik egiten.*

*Agerikoa da, halaber, halako establezimenduen jarduera ez bada arautegi tekniko-juridiko egokiaren menpe ipintzen, interes-gatazka gerta daitekeela (eta gertatu ere egiten dela), alde batetik negozioaren titularraren interesa, eta beste alde batetik interes publiko orokorra (zehazki, establezimendu horietatik hurre bizi diren herritarren intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea, lokalaren zaratek euren lasaitasuna urratzen dutelako).*

*Ondorio horietarako, ezinbestekoa da tokiko administrazioak esparru horretan jorratuko duen ekintza bideratzeko arau egokiak zehaztea. Hain zuzen ere, horixe da ostalaritzako eta jolas-jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzeko udal-ordenantza honen helburua.*

*Jarduera horien definizioa zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretua hartu dugu oinarritzat. Definizio horren asmoa zera da: ahalik eta zehatzen deskribatzea jarduera horri eskatuko zaizkion betebehar nagusiak, zaraten, bibrazioen, ordutegien eta abarren alorrean.*

establecimientos recreativos y hosteleros y, en particular, de establecimientos para los que se solicita la calificación de bar-especial, café-teatro, etc., con el único objetivo de obtener una cobertura legal que les permita disfrutar de un horario de cierre más amplio, sin atender después a otras condiciones implícitas en la calificación obtenida.

Resulta también evidente que este tipo de establecimientos, si su actividad no se somete a una regulación técnico-jurídica adecuada, pueden provocar y de hecho provocan, el conflicto de intereses que se da entre el interés del particular titular de la actividad en el ejercicio de su negocio, y el interés público general, identificado en el presente caso con el derecho a la intimidad y seguridad de cuantos vecinos residen en la proximidades de estos establecimientos que no pueden verse abocados a sufrir perturbaciones en su tranquilidad a causa de las molestias producidas por ruidos en el interior del local.

Se hace preciso, a todos estos efectos, adoptar las oportunas disposiciones que ordenen la acción de la Administración municipal en este campo, lo que se hace por medio de la presente Ordenanza reguladora de la instalación y actividad de establecimientos destinados a actividades de hostelería y recreativas.

La definición de las actividades se realiza basándose en el Decreto 171/1985 del Gobierno Vasco. El planteamiento de esta definición de las actividades es describir, en la mayor medida de lo posible, las características de la actividad que sean relevantes para el establecimiento de las exigencias a cumplir en materia de ruido, vibraciones, horarios… etc.

## I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMUA

*1. ARTIKULUA. Ordenantzak barruan hartzen dituen jarduerak*

*Honako kontzeptu hauek kontuan hartuta zerrendatuko ditugu jarduerak:*

- *Jarduera mota.*
- *Berezko zarata-iturriak.*
- *Zarata-igorpenaren muga, baldin eta ezarri behar bada.*
- *Jardueraren ordutegia.*
- *Publikoa jardueran sartzeko beharraren aurreikuspena.*

*Planteamendu orokor horren arabera, honako talde hauetan sailkatuko dira ostalaritzako, jolas-jarduteretarako eta antzeko jardueretarako establezimenduak, lokalak eta instalazio iraunkorrak:*

***I. TALDEA:***

*Berariaz adingabeentzat baimendutako lokal eta instalazioak, alkoholik gabeko edariak eta jatetxe-jarduera ez dakarten elikagaiak saltzeko baimenarekin. Besteak beste:*

*Gazteentzako dantzaleku eta jai-lekuak, gazteentzako diskotekak, dastategiak, izoztegiak, txokolategiak, txurro-dendak, croissant-dendak, te-aretoak eta horien parekoak.*

*Talde honetan sartzen dira, salbuespen modura, 14-17 urte bitarteko gazteen lokalak; alabaina, halako lokalek ezin dute eduki sukalderik, frijigailurik, plantxarik eta erregailurik, eta ez dute baimenduta, halaber, musika-aparaturik ezartzea.*

*Ez dute baimenduta musika-aparatu estereofonikorik ipintzea. Sukaldea, frijigailuak, plantxak eta erregailuak eduki ditzakete.*

## CAPÍTULO I. ÁMBITO DE APLICACIÓN

ARTÍCULO 1. Actividades incluidas

Se enumeran a continuación las actividades atendiendo a los siguientes conceptos:

- Tipo de actividad.
- Focos de ruido característicos.
- Limite de emisión de ruido, si fuera de aplicación.
- Horarios de la actividad
- Previsión de necesidad de acceso del público a la actividad.

De acuerdo a este planteamiento general, los establecimientos, locales e instalaciones permanentes de hostelería y actividades recreativas públicas y asimiladas, quedan clasificadas en los siguientes grupos:

**GRUPO I:**

Locales e instalaciones autorizados específicamente para menores de edad, o con autorización para expender bebidas sin alcohol y alimentos sin que suponga actividad de restauración, tales como:

*Salas de baile y fiestas juveniles, discotecas juveniles, degustaciones, heladerías, chocolaterías, churrerías, cruasanterías, salones de té y asimilables.*

*En este grupo se incluyen, como excepción, los locales de jóvenes de 14-17 años pero no pueden estar equipados con cocina, freidoras, planchas, asadores y no está permitida la instalación de aparatos musicales.*

No está permitida la instalación de aparatos musicales estereofónicos. Pueden estar equipados con cocina, freidoras, planchas y asadores.

*i. Ordutegia 36/2012 Dekretuak xedatutakoari lotuko zaio.*
*ii. Zarata-igorpenaren muga: 75dB(A)*

*Talde honetan sartu ahalko dira ordenantza hau indarrean sartu aurretik alkohola saltzeko eta jatetxe-jarduerak egiteko lizentzia eta baimena eskuratua zuten lokal eta instalazioak, ordenantza honen VII. kapituluan zehaztutako baldintza akustikoak eta intsonorizazio-baldintzak betetzen ez dituztenak. Gainerako puntu guztiak (I. kategoriari dagozkion ordutegiak eta zarata-igorpenen mugak) bete egin beharko dituzte, ordea.*

i. Con horario según Decreto 36/2012
ii. Límite de emisión de ruido: 75dB(A)

Se podrán adscribir a este grupo aquellos locales e instalaciones con licencia y autorización para expender bebidas con alcohol o ejercer actividades de restauración expedidas con anterioridad a la entrada en vigor de esta ordenanza, que no cumplan con los requisitos de condiciones acústicas e insonorización definidas en el capítulo VII de la presente ordenanza. Debiendo cumplir en todo lo demás (horarios y límites de emisión de ruidos los correspondientes a la categoría I)

***II. TALDEA:***

*Edari alkoholdunak saltzeko eta jatetxe-jarduerak egiteko baimena duten lokalak eta instalazioak. Besteak beste:*

*Ardandegiak, upategiak, tabernak, taberna-kafeak, snackak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta horien parekoak.*

*Talde honetan sartzen dira, salbuespen modura, 18-25 urte bitarteko gazteen lokalak; alabaina, halako lokalek ezin dute eduki sukalderik, frijigailurik, plantxarik eta erregailurik, eta ez dute baimenduta, halaber, musika-aparaturik ezartzea.*

*Baimenduta dago musika-aparatu estereofonikoak ipintzea, eta sukaldea, frijigailuak, plantxak eta erregailuak ipintzea.*

*i. Ordutegia, 36/2012 Dekretuak xedatutakoarekin bat.*
*ii. Zarata-igorpenaren muga: 85dB(A)*

**GRUPO II:**

Locales e instalaciones con autorización para expender bebidas con alcohol o ejercer actividades de restauración, tales como:

*Tabernas, bodegas, bares, cafés-bares, snacks, restaurantes, asadores, cafeterías, autoservicios, casas de comida, txokos, sociedades gastronómicas, sidrerías y asimilables.*
*En este grupo se incluyen, como excepción, los locales de jóvenes de 18-25 años pero no pueden estar equipados con cocina, freidoras, planchas, asadores y no está permitida la instalación de aparatos musicales.*

Está permitida la instalación de apartados musicales estereofónicos y pueden estar equipados con cocina, freidoras, planchas y asadores.

i. Con horario según Decreto 36/2012
ii. Limite de emisión de ruido 85dB(A)

***III. TALDEA:***

*Jarduera berezi bezala, dantzatzeko pistarik gabe musika edukitzeko baimena duten lokal eta instalazioak. Besteak beste:*

*Taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko-tabernak, karaokeak eta horien parekoak.*

*Hona halakoen ordutegia eta zarata-igorpenaren gehienezko balioa:*
*i. Ordutegia 36/2012 Dekretuak xedatutakoari lotuko zaio.*
*ii. Zarata-igorpenaren muga: 90dB(A)*

***IV. TALDEA: Diskoteka***

*Musika eta dantzatzeko pista edukitzeko eta ikuskizunak egiteko baimena duten lokal eta instalazioak. Besteak beste:*

*Jai-aretoak, dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizunak ematen dituzten jatetxeak, areto zinematografikoak eta antzokiak, bingoak, kasinoak, joko-aretoak eta horien parekoak.*

*Hona halakoen ordutegia eta zarata-igorpenaren gehienezko balioa:*

*i. Ordutegia 36/2012 Dekretuak xedatutakoari lotuko zaio.*
*ii. Zarata-igorpenaren muga: 95dB(A)*

*2. ARTIKULUA. Ordutegiak*

*1. 296/1997 Dekretua eta ondorengo aldaketak (ikusi 36/2012 Dekretua) oinarri hartuta arautuko dira ordutegiak. Dena dela, hona hemen ordutegien laburpena, bakoitzaren jarduera aintzat hartuta:*

**GRUPO III:**

Locales e instalaciones con autorización para disponer, como actividad especial, de música sin pista de baile, tales como:

*Bares especiales, whiskerías, clubs, bares americanos, pubs, disco bares, karaokes y asimilables.*

El horario y los valores máximos de emisión de ruidos quedan fijados de la siguiente manera:

i. Con horario según Decreto 36/2012.
ii. Limite de emisión de ruido 90dB(A)

**GRUPO IV: Discoteca**

Locales e instalaciones con autorización para disponer de música con pista de baile o realizar espectáculos, tales como:

*Salas de fiestas, salas de baile, discotecas, cafés-teatros, restaurantes con espectáculos, salas cinematográficas y de teatros, bingos, casinos, salas de juego y asimilables.*

El horario y los valores máximos de emisión de ruidos quedan fijados de la siguiente manera:

i. Con horario según Decreto 36/2012.
ii. Limite de emisión de ruido 95dB(A)

ARTÍCULO 2. Horarios

1. Los horarios de la actividad serán regulados en base al Decreto 296/1997 y siguientes modificaciones (ver Decreto 36/2012), estableciéndose a modo de resumen los siguientes horarios en función de su actividad:

*I. TALDEKO jarduerak:23:00ak arte*
*II. TALDEKO jarduerak: 01:00a arte*
*III. TALDEKO jarduerak: 02:30ak arte*
*IV. TALDEKO jarduerak: 04:30ak arte*

Actividades GRUPO I: hasta las 23:00h
Actividades GRUPO II: hasta las 01:00h
Actividades GRUPO III: hasta las 02:30h
Actividades GRUPO IV: hasta las 04:30h

*Jolas- eta joko-aretoak edo instalazioak ixteko ordua hauxe izango da, oro har:*

*Jolas-aretoak:23:00ak arte*
*Joko-aretoak: 01:00a arte*
*Bingo-aretoak: 03:30ak arte*
*Joko-kasinoak: 04:30ak arte*

El horario general de cierre de los locales o instalaciones de juego será el siguiente:

Salones recreativos: hasta las 23:00h
Salones de juego: hasta las 01:00h
Salas de bingo: hasta las 03:30h
Casinos de juego: hasta las 04:30h

2. *Instalazio eta egitura iraunkorretarako araututako ordutegi berdina edukiko dute aldi baterako instalazioek eta egiturek.*

3. *Ordutegi bereziak finkatzeko araubide berezia 296/1997 Dekretuan eta hurrengo aldaketetan (ikusi 36/2012 Dekretua) xedatutakoaren arabera arautuko da.*

4. *Udal agintaritzari dagokio, zerbitzu teknikoen txostena irakurri ondoren, establezimendu jakin bat taldeetakoren batean sailkatzea, partikularrak aurkezturiko proiektuan jasotakoa aintzat hartuta edota, hala badagokio, legeztatu nahi duen jarduera aintzat hartuta*

.

5. *Establezimendua argi eta garbi talde jakin batean sailkatzerik ez badago, zerbitzu teknikoek txostena eman ondoren, beraren jarduerarekin antz handiena duen taldean sartuko da.*

6. *Establezimenduren bat bi taldetan sailkatzeko aukera badago, zarata-*

2. Las instalaciones y/o estructuras eventuales tendrán el mismo régimen de horarios que los fijados para las permanentes.

3. El establecimiento y régimen especial para fijar horarios especiales, serán regulados en base al articulado desarrollado en el Decreto 296/1997 y siguientes modificaciones (ver Decreto 36/2012).

4. Corresponde a la Autoridad municipal, previo informe de sus servicios técnicos la adscripción de un establecimiento determinado a alguno de los grupos, con sujeción a las previsiones contenidas en el proyecto presentado por el particular o, en su caso, a la realidad de la actividad que se pretenda legalizar.

5. En el caso de que algún establecimiento no sea claramente encuadrable en ninguno de los grupos se incluirán, previo informe de los servicios técnicos municipales, en aquél el que más se asemeje en función de las características de la actividad de que se trate.

6. En el supuesto de que un establecimiento pudiera encuadrarse en

*igorpenari eta isolamenduari lotutako araudirik zorrotzena duen taldean kokatuko da.*

7. *Ordenantza hau instalazio berriak egiten direnean eta dagoeneko abian diren instalazioak handitzen direnean ezarriko da, 22. artikuluan jasotako tolerantziak kontuan hartuta, eta betiere instalazio finkoei lotuta. Horrenbestez, araudi honetatik kanpo geratzen dira, berariaz, aldi baterako eta behin-behineko jarduerak egiteko instalazioak, hala nola ferietako etxolak, zirkoetako eta barraketako kafetegiak eta jatetxeak, data jakin batzuetan antolatzen diren ikuskizunak eta jaiak eta abar. Dena dela, ordenantzatik kanpo utzi diren instalazio horiek udal-baimen egokia jaso beharko dute eta arlo horretako arau orokorrak bete beharko dituzte, batez ere segurtasunari eta higieneari lotutakoak.*

8. *Araudi honen pean gelditüko dira, ordea, beraren eraginpeko jardueretarako egiten diren obrak.*

9. *Ordenantza honen bidez arautuko dira aurreko ataletan deskribatutako jarduerak, beste jarduera nagusi baten osagarritzat erabiltzen direnak (hoteletako, zinemetako, bingoetako, kirol instalazio itxietako, merkataritza-zentro eta -galerietako, egoitza politiko eta sozialetako… taberna, kafetegi eta jatetxeak).*

*3. ARTIKULUA. Kokatzeko eremuak*

1. *Ordenantza honen ondorioetarako bakar-bakarrik, honela zonakatzen da udalerria:*

a) *Alde Zaharra: Alde Zaharra Babesteko Plan Berezian (AZBPB) halakotzat*

dos grupos, se aplicará la normativa más restrictiva en lo referente a exigencias de emisión y aislamiento al ruido.

7. Esta Ordenanza se aplicará tanto a las nuevas instalaciones como a la ampliación de las ya existentes, con las tolerancias contenidas en el artículo 22 y siempre referidas a instalaciones fijas, por lo que quedan expresamente excluidas de la presente regulación las instalaciones de actividades provisionales y temporales, tales como Casetas de Feria, Servicios de Café y Restaurante en Circos y Barracas, Choznas, organización de espectáculos y festejos en fechas determinadas, etc., todo ello sin perjuicio de que tales instalaciones excluidas habrá de obtener la pertinente autorización municipal, y cumplir las normas generales en materia, fundamentalmente, de seguridad e higiene.

8. Quedarán igualmente sujetas a la presente normativa las obras que se proyecten con destino a las actividades afectadas.

9. Se regularán asimismo por la presente Ordenanza las actividades descritas en los apartados anteriores que funcionen como complementarias de otra actividad principal (cafeterías, bares y/o restaurantes en hoteles, cines, bingos, instalaciones deportivas cerradas, centros o galerías comerciales, sedes políticas o sociales,…etc.).

ARTÍCULO 3. Zonas de emplazamiento

1. A Los exclusivos efectos de esta Ordenanza, se establece la siguiente zonificación del término municipal

a) Zona en Casco Histórico: La definida como tal en el P.E.P.C.H.

*zehaztutako eremua.*

*b) Bizitegi-eremua: HAPOak halakotzat jotzen duen eremua, hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren barruan sartuta dagoena, aurreko atalean zehaztutako Alde Zaharreko eremua izan ezik.*

*c) Eremu industriala: HAPOak halakotzat jotzen duena, hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren barruan sartuta dagoena.*

*d) Landa-eremua: gainerako udalerria.*

b) Zona Residencial: La calificada como tal por el P.G.O.U., incluida en suelo urbano y urbanizable, salvo la zona de Casco Histórico definida en el apartado anterior.

c) Zona Industrial: La calificada como tal por el P.G.O.U., incluida en suelo urbano y urbanizable.

d) Zona Rústica: El resto del término municipal.

## *II KAPITULUA. JARDUERAREN KOKALEKUA*

## CAPÍTULO II. SITUACIÓN DE LA EDIFICACIÓN

*4. ARTIKULUA. Kokalekua eraikinean*

ARTÍCULO 4. Situación en la edificación

*1. Jarduera horiek eraikinetako beheko solairuetan kokatuko dira, batez ere, baina sotoen eta lehen solairuen bidez osatzeko aukera ere egongo da, baldin eta hurrengo atalean zehartutako baldintzak betetzen badituzte eta, betiere, ezarri beharreko beste Arau eta Ordenantza batzuk betetzeko derrigorrari kalterik eragin barik.*

*2. Honako baldintza hauek bete beharko dira:*

*a) **Beheko solairuan egiten den jarduera izango da nagusia**, eta lehen solairuan edo beheko solairuan egiten den jarduerak beheko solairuko jarduera nagusiaren osagarri izan beharko du.*

*b) **Lehen solairuaren** azalera ez da sekula izango jarduera nagusiari eusten dion beheko solairuaren azalera osoaren **%70** baino handiagoa. Agerikoa denez, ondorio horretarako ez da solairuartea zenbatuko.*

*c) **Beheko solairuaren** azalera ez da izango sotoko solairuaren azalera*

1. Las actividades se situarán fundamentalmente en las plantas bajas de los edificios, pudiendo complementarse con la adición de sótanos y plantas primeras, siempre y cuando se cumplan las condiciones señaladas en el apartado siguiente, y sin perjuicio de cumplimiento de otras Normas y Ordenanzas que sean de aplicación.

2. Deberán cumplirse las siguientes condiciones:

a) La actividad que se desarrolla en la **planta baja será la principal**, debiendo ser la de sótano o planta primera, complementaria de aquella.

b) La superficie de la **planta primera** nunca será mayor del **70%** de la superficie de la planta baja soporte de la actividad principal, bien entendido que a estos afectos no se contabilizarán los entrepisos.

c) La superficie de la **planta baja** no podrá ser inferior al cincuenta por

*osoaren **%50** baino txikiagoa.*

***d)*** *Sotoa beheko solairuko jarduera nagusiaren osagarritzat erabili ahal izateko, segurtasunari eta baldintza higieniko-sanitarioei lotutako eskakizunak betetzeaz gain, interesdunak egiaztatu egin beharko du, txosten tekniko egoki baten bidez, ezin dela garajetzat/aparkalekutzat erabili eta bi solairuetako jarduerak talde berberean sartzen direla.*

***e)*** *Osagarritzat erabiltzen diren **sotoen gutxieneko alturea** libre bukatua (dekorazioak eta intsonorizazioak ere barnean sartuta), bi metro eta erdikoa (**2,50m**) izango da. Dena dela, puntualki instalazio eta dekorazio txikiagoak ere onar litezke, baldin eta altuera librea bi metro eta hogei zentimetro (**2,20m**) baino txikiagoa ez bada.*

***f)*** *Osagarritzat erabiltzen diren **lehen solairuetako gutxieneko altuera libre bukatua** bi metro eta berrogeita hamar zentimetrokoa (**2,50m**) izango da, dekorazioak eta intsonorizazioak ere kontuan hartuta.*

